

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa-proiektu bat martxan jartzeko edota garatzerako orduan, **funtsezko baliabide** batzuk hartu behar dira kontuan. Baliabide horietako batzuk **externalizazioa**, **kostuak murriztea**, **hobetzeko aukera**, **iraunkortasuna** eta **ordezteko aukera dira**.

Gure kasuan, ez ditugu baliabide horiek guztiak izango. Esaterako, externalizazioa eta ordezteko aukera ez ditu izango. Bestalde, kostuak murriztea, gure funtsezko baliabide bat da, hau da, **kostuak murriztea** enpresa batek kostuetan duen **eragina minimizatzea** da. Gure proiektuan, oso garrantzitsua izango da, soilik beharrezkoak diren saioak eskaintzea, azkenean guk sartzen ditugun orduen arabera ezarriko baitira kostuak, hori dela eta, eta gailu digitalen erabilera oso garrantzitsua denez gure ideia aurrera eramateko, gailu digitalak (beraz, saioak) beharrezkoak diren orduetan bakarrik erabiltzea nahitaezkoa da, horrela iritsiko zaizkigun gastuak merkeagoak izango baitira. Beste baliabide batekin jarraitzeko, **hobetzeko aukera** era guretzat beharrezkoa izango da, hots, beti interesatzen zaigulako proiektuak berrikuntza batzuk izatea. Errekurtso hori izatea, zerbitzua **perfekzionatzeko gaitasuna** izatean datza. Gu, prest gaude norbaitek gure proiektuak berrikuntza bat izateko proposamena izango balu entzuteko, izan ere, askotan uste baitugu gure zerbitzua hoberena dela eta hori horrela izango ez balitz, zerbait aldatzeko proposamenak izanez gero proposamen berriak esku zabalik hartuko genituzke. Azkenik, beste oinarrizko baliabide bat **iraunkortasuna** izango litzateke, hau da, zerbitzua noizean behin gelditu egin beharko da hobekuntza batzuk egiteko, bestela beti berdin jarraituz gero, zerbitzua iraunkorra izatea, hau da, eskaintzen duguna errentagarria izatea zaila izango litzateke.

Aurretik esandakoaren harira, esan beharra dago, zerbitzu bakoitzeko funtsezko baliabideak **beharrezkoak** eta oso **garrantzitsuak** direla balio-proposameneko eskaintzak garatzeko, bezeroen beharretaraino iristeko, bezeroak asebetetzeko, haiekin harremanak izateko eta diru-iturriak lortzeko. Alegia, errekurtso horiek dira zerbitzuari onurak ekartzea ahalbidetzen diotenak.

Horrez gain, era desberdinetako baliabideak daude. Adibidez, baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak. Gure kasuan ez ditugu horiek guztiak izango baina bai gehienak. Esaterako baliabide fisikoak, intelektualak eta finantza baliabideak. Hasteko **baliabide fisikoak** bat baino gehiago izango ditugu: ordenagailuak ezinbestekoak dira gure zerbitzuan, saioak “online” bidezkoak izango direnez bertatik emango baititugu, gutxienez mugikor bat ere beharrezkoa izango zaigu, harremanetan egoteko, hau da, edozein zalantza, kexa edo bestelako zerbait komunikatzeko mugikor baten bidez egingo dugulako. Bestalde, **baliabide intelektualak** ere izango ditugu: webgune bat diseinatzeko abilezia, hau da, komunikatzeko bidea mugikorraz gain webgune hau izan daiteke eta gainera irakasle-ikasle arteko kontaktua ere bertatik ahalbidetuko da. Amaitzeko, **finantza-baliabideak** ere izango ditugu: zerbitzuaren premiazko aurrezkiak. Aurrezkiak zerbitzu edota enpresa bakoitzaren arabera desberdinak izango dira, azken batean proiektu bakoitzak aurrezkiak era desberdinetan gastatuko dituelako. Gure kasuan, aurrezkiak beharrezkoak izango dira ditugun irakasle guztiei beraien soldata ordaindu ahal izateko eta baita internet konexioak, ordenagailuak eta saioa aurrera eramateko beharrezkoak diren materialak ordaintzeko ere. Beraz, ez dugun edukiko baliabide mota bakarra giza-baliabidea izango litzateke, gure zerbitzuan garrantzi gehiago izango dutelako gainontzeko baliabideek eta ez dugulako ezinbesteko giza baliabideen beharrik sumatzen.

Proiektuak arrakasta izateko baliabide **ukiezin** eta **ukigarriak** izatea ere beharrezkoa da, esaterako, esperientziak, kontaktuak eta abileziak izatea. Gure kasuan, ez dugu aurretik **esperientziarik**. Izan ere, lehenengo aldia baita horrelako zerbitzu bat eskaintzen duguna eta gure inguruan horrelakorik ez dagoenez ez dakigu nolakoa izango den sortu berri dugun proiektua. Hala ere, horrelakorik aurretik egin ez arren, irakasleak formakuntza bat jasota egongo dira eta gainera, hautatutako irakasleak aurretik irakasle izandakoak edota orientatzaile lanetan egondakoak izango dira. Bestalde, **kontaktuak** ere garrantzitsuak dira. Guk, aurretik esan bezala, ez daukagu inguruan horrelakorik kontaktatzeko, baina Euskal Herritik kanpo horrelako zerbitzuak ezagutzen direnez, beraiekin kontaktuan jartzeak onurak ekarriko dizkigu beraien zerbitzuaren nondik norakoak ezagutzeko. Azkenik, **abileziak** ere beharrezkoak dira arrakasta lortzeko. Izan ere, abilezia batzuk izateak lana errazten dutelako. Gure kasuan, gure abileziak honako hauek izango dira: ikasleen paperean jartzeko eta nola sentitzen diren jakiteko gaitasuna daukagu eta ikasle horien arazoei konponbide bat emateko ere ahalmena daukagu.

Esan beharra daukagu, aurretik aipatutako baliabide guztiak beharrezkoak direla zerbitzuak arrakasta izateko edo aurrera eraman ahal izateko. Azken batean, baliabide horiek gabe proiektua kolokan geldituko zelako, hau da zerbitzua ezingo litzateke aurrera atera baliabideak erdizka baditugu. Guk, baliabide gehienak ditugu, beraz, zerbitzua aurrera ateratzeko aukera badaukaugula uste dugu.